

Zangoza / 2025

KULTUR AGENDA

maiatza



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA PALACIO DE LA CULTURA
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia / Kultura-Etxea

Kultur Zerbitzuko arreta ordutegia: astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Kultur agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es

Gure kultur agenda Facebooken eta www.sanguesacultura.es

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

SARRERAK SALTZEA

Aldez aurreko salmenta: maiatzaren 6tik aitzina, Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. Antzezenaren egunean online salmenta ekitaldia hasi baino bi ordu lehenago amaituko da. **Informazio-telefonoa:** 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezen egunetan: Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Informazio-telefonoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskikunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretora sartzean. .

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultur Zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak Babesteko Legea hemen kontsultatu: www.sanguesa.es

KULTUR AGENDA

maiatza



1	Og	Erakusketa. «Zangozan lagunekin» (maiatzaren 4ra bitarte)	4. Orr.
	Og	Errromesaldia eta jaia San Babilen	8. Orr.
2	Os	Epearen hasiera. Zaindariaren jaietarako lehiaketak	8. Orr.
3	La		
4	Ig	Erakusketaren amaiera «Zangozan lagunekin»	4. Orr.
5	Al		
6	As		
7	Az		
8	Og	Erakusketa. «Un jardín para el futuro»(ekainaren 1era bitarte)	4. Orr.
	Og	Pablo Juarros artistarekin topaketa	4. Orr.
	Og	Aho-ensemleren eta Mitxoletak Abesbatza	8. Orr.
9	Os		
10	La	Udal Banda Elkartearen kontzertua	8. Orr.
11	Ig	Dantzaren Eguna ospatzea	7. Orr.
12	Al		
13	As		
14	Az	Musika Eskolako ikasleen kontzertua	8. Orr.
15	Og		
16	Os		
17	La	Antzerkia. «Arizona»	5. Orr.
18	Ig	Pablo Juarrosekin bisita gidatua «Un jardín para el futuro»	4. Orr.
19	Al		
20	As		
21	Az	Zuretzako antzerkia. «Viaje a la nada»	6. Orr.
22	Og	Musika Eskolako ikasleen kontzertua	8. Orr.
23	Os	«Ager Vasconum 2014-2024» liburuaren aurkezpena (eusk.)	7. Orr.
24	La		
25	Ig		
26	Al		
27	As	Gitarra Ensembleren eta Bandaren kontzertua	8. Orr.
28	Az	Zuretzako antzerkia. «Conjeturas»	6. Orr.
29	Og	Erakusketa. «Sueños de futuro» (ekainaren 22ra bitarte)	4. Orr.
	Og	Musika Eskolako ikasleen kontzertua	8. Orr.
30	Os		
31	La		

EKAINA

1	Ig	Amateur antzerkia. «La Valentía»	5. Orr.
---	----	----------------------------------	---------

Azaleko irudia: «Arizona»

Erakusketak



«Zangozan lagunekin»

PEDRO SALABERRI

MAIATZAREN 4RA BITARTE

"Margotzen ditudan koadroak publikoarekin partekatzea da izan dezaketen helbururik onena, eta Zangozan lagunaren artean egitea bi aldiz pozgarria da". Pedro Salaberri.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«Un jardín para el futuro»

PABLO JUARROS. ESKULTURA

MAIATZAREN 8TIK EKAINAREN 1ERA

Eskultoreak hainbat pieza proposatzen ditu lorategi futurista batera garamatzatenak. Artistak naturarekiko elkarriketa berreskuratzearen alde egiten du, kontenplaziotik eta begirada sosegatutik abiatuta.

Pablo Juarros artistarekin topaketa

OSTEGUNEAN, MAIATZAK 8

Ordua: 19:00.

Pablo Juarros artistarekin bisita gidatua

IGANDEAN, MAIATZAK 18

Ordua: 12:00.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«Sueños de futuro»

PINTURA TAILERRA

MAIATZAREN 29TIK EKAINAREN 22RA

Zangozako Kultur Etxeko pintura eta sorkuntza artistikoko tailerreko neska ikasleek urritik maiatzera bitartean egindako sorkuntza libreko lana aurkezten dugu. Lanak eskaintza garbi, koloretsu eta argitsu gisa aurkezten dira. Haziak, etorkizuneko ametsak eta bihotzetik sorturiko opariak erakusketa bisitatzen duen edonorendako.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko bigarren solairuko Erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak Karmengo entzunaretoan



ANTZERKIA

«Arizona»

TXALO PRODUCCIONES

LARUNBATEAN, MAIATZAK 17

Antzerkilariak: Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola.

«Arizona» antzezlanak AEBek Mexikorekin duen mugan kokatzen gaitu. George eta Margaret gringoek beren mugak defendatu behar dituzte. Bizilagunak hortxe daude, zelatan, ahalik eta deskuidurik txikienean gurutzatzeko zain. Arizona ez dago hain urruti. Arizona hemen dago, gure hiri bakoitzean... Mugei, migrazioari, giza ergelkeriari eta manipulazioaren mugei buruz hausnartzen duen testua.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 85 minutu.

Ordua: 19:30.

Sarrerak: 10 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

TEATRO AMATEUR

“La Valentía”

OIBARREKO «DOÑA SANCHA DE AIBAR/OIBAR»

ANTZERKI-TALDEA

IGANDEAN, EKAINAK 1

Zuzendaria: Mercedes Castaño.

Antzerkilariak: Natalia castañuelas, Elaia Murillo, Beatriz Olagüe, Tomás Gistao, Anselmo Fernández eta Tere Ayesa.

Trinik eta Guadak, beren haurtzaroko udak igarotzen zituzten etxea jarauntsi dute. Maite duten etxea da, baina arazo txiki bat du: autopista bat atetik bost metrora igarotzen da. Guadak etxean geratu nahi du. Trinik, aldiz, saldu egin nahi du. Bestalde, Guadak etxeko logeletako bat jarri du Airbnb-n.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 70 minutu.

Ordua: 19:00.

Aldez aurreko sarrerak: 5 €. **Txartel-leihatilan:** 6 €.

Laguntzailea: Gobierno de Navarra.

Zuretzako antzerkia



«Viaje a la nada»

PRODUCCIONES MAESTRAS. LiterArte Jaialdia
ASTEAZKENEAN, MAIATZAK 21

Antzerkilariak: Izaskun Lasarte eta Ángel García Moneo.

Ezerezero bidaia bi antzerkigile eta bi antzerkigileren eskutik sortutako proposamena da, agian ezerk ez duela garrantzi handirik erakusteko. Abiapuntua Carmen Laforeten **Nada** eleberria da, **Ventura Ruizek** bere **Nada** liburuan ikertu duena. Rosa Ribasen **Lejos Ana Maestrojuan**endako baliagarria izan da oso **Gertu** egon gaitezkeela deskribatzeko. Begoña Pro Uriarte idazle nafarraren **La dama blanca de Champaña** lanarekin, **Asier Anduezak** gerren benetako interesak agerian uzten ditu bere **De los blancos y de los negros** gurutzada pertsonalean. **La joven y el mar**, Catherine Meurisserena, baliagarri izanen zaio **Patxi Larreari** **El último silencio** proposatzeko, bizitzaren eta ez-bizitzaren, fikzioaren eta errealitatearen arteko bidaia zoroa, izan zitekeena eta agian inoiz izanen ez dena.

Ikusleekin topaketa funtzioaren ondotik.

Iraupena: 60 minutu.

«Conjeturas»

LA CUERDA TEATRO

ASTEAZKENEAN, MAIATZAK 28

Antzerkilariak: Maider Lekunberri eta Maitane Pérez.

Garbitegi bateko bi langile hirugarren batek lana eta hiria uzteko arrazoiak ulertzen saiatzen ari dira. Elkarriketa, hasieran, errealista eta logikoa da, eta pixkanaka, inkongruente eta zentzugabe bihurtzen da.

Iraupena: 25 minutu.

Ordua: 19:30.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea.

Sarrera doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira, **maiatzaren 6az geroztik**.

Sarrerak erreserbatu ahalko dira Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948870251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Dantzaren eguna



DANTZAREN EGUNA OSPATZEA

IGANDEAN, MAIATZAK 11

Ekitaldiaren aurkezpena, Dantzaren Eguneko manifestua irakurriz eta estilo ezberdinetako dozena bat koreografiak osatutako erakusketa batez. Dantza garaikideak, tangoak, saltsak eta kizombak, besteak beste, Zangozako dantza tipikoekin partekatuko dute agertoki berezia.

Ordua: 12:00. **Iraupena:** 75 minutu.

Lekua: Arkupeak.

Antolatzailea: Arantxa Villanueva Dantza Konpainia.

Laguntzailea: Rocamador Dantza Taldea.

Liburuaren aurkezpena



“AGER VASCONUM 2014-2024”

(euskarazko aurkezpena)

OSTIRALEAN, MAIATZAK 23

Ager Vasconum gazteendako euskarazko literatur lehiaketaren hamargarren urteurrena dela eta, ipuin irabazleak biltzen dituen liburu bat argitaratu da. Liburuaren aurkezpenean eta ondorengo solasaldian Amaia Aldanondo Perkaz, Leire Asurmendi Gracia, Udara Pascual Semitiel eta Arrate Sola Itoiz izanen ditugu, azken edizioetan sarituak izan ziren zangozarrak. Gainera, Kasedako Uxue Gogorza Aznar eta Domeñuko Lucía Orradre Fernández eskualdeko irabazleak egonen dira.

Ordua: 19:00.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoa.

Lehiaketa

HENRIKE II.A ALBRETEKOA, «ZANGOTZARRA», XXX. IKERKUNTZA- LEHIAKETA

Lan-egitasmoen aurkezpena Zangozako Udaletxean egingen da 2025eko ekainaren 30a (barne) baino lehenago. **Oinarriak:** Eskatu honako helbidean www.zangotzarra.es

Antolatzailea: Henrike II.a Albretekoa Kultur Taldea.



Zaindariaren jaietarako lehiaketak



2025EKO ZAINDARIAREN JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Aurkezteko epea: maiatzaren 2tik ekainaren 2ra
14:00etan.

«ZANGOZAKO HIRIA» HAUR-LITERATURAKO LEHIAKETA. HITZ LAUZ EDO BERTSOZ

Aurkezteko epea: maiatzaren 2tik ekainaren 10era
14:00etan.

Oinarriak eskuragai Kultur zerbitzuan edo
www.sanguesa.es udaleko web-orrian.

Musika Eskola



Aho-ensebleren, «Mitxoletak» Abesbatzaren
kontzertua Zangozako «Juan Francés de Iribarren»
Musika Eskolako Brassband eta Fanfarrearekin

OSTEGUNEAN, MAIATZAK 8

Ordua: 19:30. **Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.



Gitarra ensembleren eta Bandaren kontzertua
Sarasatera sartzen diren ikasleekin

ASTEARTEAN, MAIATZAK 27

Ordua: 19:30. **Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.



Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika
Eskolako ikasleen kontzertuak

MAIATZAK 14, ASTEAZKENA, ETA 22 ETA 29, OSTEGUNA

Ordua: 19:30. **Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

Beste kultur talde batzuk



ERROMESALDIA ETA JAIA SAN BABILEN

OSTEGUNEAN, MAIATZAK 1

12:00: Meza Santua. Janaurrekoa. Txistor jate herrikoia.

Antolatzailea: Zangozako Horizonte Elkartea.



ZANGOZAKO UDAL BANDA ELKARTEAREN KONTZERTUA ZAHAR-EGOITZAN

LARUNBATEAN, MAIATZAK 10

Antolatzailea: Zangozako Udal Banda Elkartea.